

# DURANGALDEKO MITOLOGIA



JOKIN  
CAMARERO  
GARAI

# DURANGALDEA

Durangaldeko mapa artikuluan aipatutako tokiak kokatzeko



- 1 Anboto
- 2 Mugarra
- 3 Oiz
- 4 Muntsaratzeko Dorrea
- 5 Urkiola
- 6 Akelarre landa
- 7 Kurutzia museo

# SARRERA

---

**E**uskal mitologiak, alegia, mendez-mende transmititu izan diren istorio eta kondaira magikoek euskal kulturaren altxor aberatsenetakoa osatzen dute. Aitona-amonek ahoz-aho beraien senide gazteenei helarazi izan dizkieten elezahar hauen artean, Durangaldeko paisaiek garrantzia handia dute.

Sinistu edo ukatu ezin ditzakegun kondaira hauek gure gizartearen izaera eta historia osatzen duten zati ezinbestekoa dira, eta ahaztu ezin dezakegun atal garrantzitsua.

Datozen lerroetan gure mendi eta bailaren artean mendeak igara ahala bizi izan diren izaki fantastikoak eta mitikoak ezagutzeko gonbitea egiten dizuet. Beraz, gatozen Durangaldeko mitologia ezagutzera.



*Anboto tontorra (1)*

# ANBOTOKO DAMA

**A**ntzinako beste mundu mitiko askotan bezala, bada euskal mitologiaren panteoian nagusitzen den izaki bat, Mari. Kristau aurreko euskal jainkosa nagusiaz ari gara, ama lurraren eta naturaren jainkosa eta erregina, hain zuzen. Honek natura osatzen duten elementu guztien gaineko boterea du.

Oro har, eme izaeradun gizaki baten moduan irudikatzen da, modu dotorean berdez jantzitako emakume eder gisa. Hala ere, itxuraz aldatzeko ahalmena ere badu. Hain zuzen ere, emakumezko sexua duen jainkosa troglodita eta antropomorfikoa adierazten du, eta jantzi dotorez zein sugarrez inguraturik dagoen emakumearen itxura hartuta ageri ohi zaigu edota suak hartutako ortzadarraren nahiz ekaitz-hodeiak daramatzan zaldiaren itxura hartuta. Beste zenbaitetan, berriz, hegazti erpeak edota ahuntz apatxak dituen emakume bezala ere izan da deskribatua edota, halaber, emakume itxurako zuhaitz gisa ere. Sarritan emakume-itxura daukanetan adats horaila du ezaugarri, urrezko orrazi batekin eguzkitan orrazten duena.

Euskal Herriko mendietako haitzuloetan bizi da, "Behigorri" bere behi erraldoiarekin, eta bere etxea 20 tontor baino gehiagotan kokatu izan den arren, Anbotoko horma bertikal ikusgarrian dagoen haitzuloan du bere egoitza nagusia. Izan ere, Anboto ekialdeko kobazulo honek, "Mariyenkobia" izenekoak, ematen dio bere izena: Anbotoko Mari edo Mari Anbotoko Dama. Durangaldeko mendietan, Anbotoz gain, Mugarran eta Oizen ere igaro du denbora sarritan Marik.



*Mariyenkobia*

Gailurraren azpian, kobazulo horietan, bere fededunei harrera egiten die Anbotoko Marik, eta horiek protokolo zorrotza bete behar dute. Hikan egin behar zaio, eta etengabe hitz egin behar zaio. Kobazulotik sartu bezala irten behar da, kobazuloko iluntasunera begira, Mariri bizkarra emateke. Orobat, esertzea galarazita dago, ezta berarekin hitz egiteko gonbidapena jaso ondoren ere.

Askotan, Anbotoko Damaren istorioa Bizkaiko historiaren hainbat pertsoniarekin erlazionatua izan da, euskal mitologiaren eta historiaren artean sinbiosia eratuz. Honek Mariren jatorriaren inguruko hainbat kondaira sortu izan ditu.

Kondaira hauek dioenez, Urraca Andrea (edo Urraca I de León), Santxo VI. Nafarroako Erregearen alaba, Pedro Ruiz Abadiñoko Muntsaratzeko Dorretxearen jabearekin ezkondu zen 1172. urtean. Hauen seme nagusia, Ibon, dorretxeko oinordekoa izatekoa zen, baina bere arreba gazteak, Mariurrikak, Ibonenganako gorrotoak bultzatuta, haren heriotza eragin zuen: goiz baten, zerbitzari baten laguntzarekin, bere anaia nagusia Anbotoko horma bertikaletik jaurti zuen. Itzultzean, Ibon mendian behera erori zela esan zuen Mariurrikak. Kontzientziak jazarrita, gau batean Ximelgorriak, deabruaren zerbitzariak, agertu ziren Muntsaratzen. Harrezkero desagertu egin da Mariurrika eta Anbotoko kobazuloetan bizi omen dela diote.



*Muntsaratzeko Dorretxea (4)*

Bada Mariren sorrera azaltzen duen beste istorio bat. Kondairaren arabera, eguzkiaren eta ilargiaren batasunetik jaio zen Mari, eta mundura oreka ekartzea zen bere xedea. Jaio zen unetik, Anbotoko Erreginak botere eta jakinduria harrigarriak izan zituen, eta berehala bihurtu zen euskaldunen artean pertsona errespetatua eta gurtua. Hala ere, Mariren boterea ez zen mundu naturalera mugatzen. Gaixoak sendatzeko eta haien grazia bilatzen zutenak bedeinkatzeko gaitasuna zuela ere esaten zen. Ondorioz, jendeak sarritan egiten zizkion eskaintzak Mariri, laguntza eta babesak jasotzeko itzaropenez. Mariren boterea izugarria izan arren, etsai asko ere bazituen. Erdi Aroan Euskal Herrian eragina izan zuen eliza kristauak mehatxu gisa ikusi zuen, eta bere kultura ezabatzeke lan egin zuen. Mariri lotutako tradizio pagano asko debekatuak izan ziren, eta bere jarraitzaileak sarritan jazarriak. Horren ondorioz, Marik Anbotoko mendian ezkutatzea erabaki omen zuen, bere jarraitzaileek erraz aurkitu ez zezaten.

Mariren jatorriari buruzko beste elezaharretako baten arabera, Mari ama eta alaba baten arteko liskar baten ondorioz jaio zen. Ama eta alaba elkarrekin bizi ziren. Egun batean, amak haserretuta madarikatu zuen neska, “deabruak eramango ahal zaitu!” oihukatuz. Hori esan zuenean, Satanasek bera agertu zen, eta alaba eraman zuen. Neska inguruko mendietan utzi zuen betiko. Elezahar honen beste bertsio baten arabera, bazen kristau on batekin ezkonduko emakume gaiztoa, Elorrioko baserri batean bizi zena. Bikote honek bost seme-alaba izan zituen, baina amak haurrak bataiatzerik nahi ez zuenez, aitak ama gurdi batera igo zuen, bertan lotu, eta elizara abiatu ziren umeentzako bataio bila. Bidean, emakumea sutan jarri zen, gurdinari lotzen zioten lokarriak erre zituen eta, airean hegatu, “nire haurrak zerura eta ni orain mendira!” oihukatu omen zuen. Harrezkero, inguruko mendietan zehar ikusi izan dute, ilea sutan, urrezko orrazi batekin orrazten.

Bestalde, Marik eguraldi eta klimari lotutako botereak ere baditu. Ekaitzak iragartzen ditu, klima zehazten du eta hegatu egiteko duen gaitasunagatik ezaguna da. Anboto tontorra estalita badago, jainkosa etxean dagoela esaten da. Tontor lainotsua bere presentziaren adierazpena da. Durangaldean esaten da zazpitik behin Anbototik Oizera lekualdatzen dela eta eguraldia Mari dagoen lekuaren arabera dela. Gainera, lekualdatze honetan, Marik su hartutako gurdi baten itxura hartzen duela diote, eta Oiz inguruan kometa baten moduan antzeman daitekeela.

Orobat, Mari lurreko eta meteoroen andrea da. Klimaren indarrak eta lurraren barrualdea menperatzen ditu. Bere zereginen artean gezurra, lapurreta eta harrotasuna zigortzea daude, eta berak ekartzen ditu lurraren ondasunak eta iturburuak ura. Gizonekin era tiranoan jokatu du, edo bestela, maitemindu egiten ditu emakume leial eta langile gisa agertuz, baina beti egiaren bidez justizia emateko. Gezurra esaten baduzu zurea den zerbait duzula ukatuz, Marik kendu egiten dizu. Antzina, artzainak prozesioan joaten ziren Anbotoko Mari gurtzera, artaldeak txikituko zituen txingorrik edota izurriterik ez jasateko erreguka.

Mariren ezkontidea Maju edo Sugar da. Maju, Sugaar edo Sugoi izenez ezaguna den pertsonaia honek suge itxura du eta, suzko igitaiak balitz bezala, zerua zeharkatzen du ekaitz eta trumoi itxurarekin. Ostiralero lur barnetik irten, Marirekin elkartu eta ekaitzak sortzen omen dituzte, gurasoei kasu egiten ez dietenak zigortzeko helburuarekin. Majuren lehengusu gaiztoa Deabruaren kobazuloren batean ezkutatuta bizi dela diote. Herensuge du izena, eta pertsonak jaten dituen ilez betetako suge erraldoia da.

Marik eta Majuk bi seme dituzte: Mikelats eta Atarrabi. Atarrabi eta Mikelats minutu gutxiko aldearekin jaio ziren. Oso gazteak zirela, amak Deabruari eskaini zizkion, bere irakasle eta tutore bihurtzeko. Deabruak leku ezkutu eta ahaztu batean duen haitzuloan ikasi zuten, batzuen ustetan, Zugarramurdiko haitzuloetan. Haurrek guztiz aurkako izaerak garatu zituzten. Atarrabi zintzoak bere hormetatik haratagoko mundua ikusi nahi zuen; Mikelats gaizto eta deabruzkoak, ordea, nahiago zuen zegoen tokian geratu eta bere maisuaren menpe mantendu. Satanasek bere ezagupenak lortzeko baldintza bakarra jarri zien anaiei: behin ikasketak amaituta, anaietako batek betiko geratuko beharko zuen



*Deabruaren galbahea*


leku ilun hartan. Unea iritsitakoan, Deabruak Mikelats aukeratu zuen berarekin han gelditzeko, baina, Atarrabik, bihotz handikoa zenez, bere burua eskaini zuen esklabo gisa bertan gelditzeko, eta Mikelats aske irten zen leizetik. Orduan, Deabruak Atarrabi bere despentsako irina galbahetik pasatzera behartu zuen. Lan honek bukaezina zirudien, galbaheko sareak ez zirelako batere trinkoak eta ezin zitekeelako irina iragazi. Gainera, Deabruak bere dizipulua ondo kontrolatuta izateko, etengabe galdetzen zion “Atarrabi non zaude?” eta presoak erantzun behar zion “Hemen nago”.

Urteak igaro ahala, Atarrabik galbaheari irakatsi zion Deabruaren etengabeko galderari erantzuten. Bien bitartean, Mariren semea Satanasen etxetik alde egiten saiatu zen, baina, lortzear zegoela, Deabruak ikusi egin zuen. Hala ere, Luziferrek harrapatu ahal izan zuen bakarra Atarrabiren itzala izan zen, eta mutila itzalik gabe utzi zuen.

Honen ostean, Atarrabi Sarako parrokiako apaiz bihurtu zen. Itzala meza ematen zuenean baino ez zen beregana itzultzen, konsagrazioa egiteko unean. Hala ere, Atarrabik ezin izango zuen betirako salbazioa lortu eta zerura joan itzala ez bazuen. Lorik gabeko gau luzeak eman zituen Deabrua engainatzeko eta bere itzala berreskuratzeko moduren baten bila. Azkenean zera bururatu zitzaion: bere sakristauari eskatu zion arratsaldeko mezan hil zezan, bere itzala itzultzen zen orduan. Gero, bere gorpua kanpoan utziko zuen eta bere bila usoak bazetozen, zerura joango zen seinalea izango zen. Beleak bazetozen, ordea, betirako kondenaturik bukatuko zuen Atarrabik. Sakristauak jaramon egin zion eta, zorionez, usoak etorri zitzaizkion Atarrabiri bere heriotzaren unean.

Askotan, Mikelats eta Atarrabi elkarren aurka ongiaren eta gaizkiaren irudikapen paleokristau moduan agertzen dira, Cain eta Abelen istorioaren irudikapen gisa.

Gaur egun, Anbotoko Damaren eta bere familiaren irudia euskal nortasunaren sinbolo bezala erabiltzen da, eta baserritar askok jarraitzen dute bere bedeinkazioak jasotzeko itxaropenarekin eskaintzak egiten. Bere istorioak Euskal Herriak bere lurraekin eta tradizioekin duen lotura sakonaren oroigarri gisa balio du, eta bere kulturaren erresilientzia nabarmentzen du kanpoko presioen aurrean. Mariren presentzia Durangaldeko mendietan oso era bitxian ageri da etzanda dagoen dama baten antza duten mendien profilaren irudia ikusten duenarentzat: damaren sudurra Alluitzen, lepoa “Paso del Diablo” deritzon pasalekuan eta oinak Anboton irudikatzen dira.



*Mariren silueta mendietan*

# URKIOLAKO PIZTIAK

**D**urangaldeko haitzek, natura eta paisaia alorrean balio handiko eremua izateaz gainera, kultur baliabide garrantzitsuak ere gordetzen dituzte, denboraren joan-etorrian ahozko tradizio, mito, kondaira zein ipuinetan oinarritutako folklore aberatsa sortarazi izan dituztenak.

Kultura horrek bere marka utzi du inguru honetan eraiki diren herrietan. Horrela, bada, antzinatek isolamendu handia sortu zuten mendi hauen babespean daukan kokapen eta inguruari esker, Urkiolako ezaugarriak erakargarrietakoa oso gutxi gizartetua izatea da. Beraz, ez da batere harrizkoa bertan halako kulturetakoak izan ohi diren mito eta kondairen multzo ugaria aurkitzea.

Horrela, Urkiolako basoak hainbat pertsonaia fantastikoren bizilekutzat jo izan dira, besteak beste jentilena, hots kristauen aurreko euskaldunak irudikatzen dituzten izakiena. Hauek erlijio katolikoa Euskal Herrira iritsi aurretik izan ziren gure mendi eta bailaretan. Euskal Herriko lehen biztanletzat hartzen diren erraldoi mitikoak dira jentilak. Gizaki itxurako pertsonaia hauek zuhaitzak bezain handiak ziren, eta hain indartsuak non trikuharriak eta megalitoak eraiki zituztela uste izan den, bai eta konplexutasun handiko beste obra batzuk ere. Hauek larruz eta adarrez estaltzen ziren eta animaliak hezten eta barazkiak lantzen lehenak izan ziren. Hala ere, oso pertsonaia indartsuak izan arren, jentilak ez ziren izaki perfektuak. Baldarrak ziren, eta batzuetan harri erraldoiak edonon uzten zituzten, gaur egun gure inguruko mendi eta basoetan ikus ditzakegunak. Jentilak aspaldi desagertu ziren oraindik ikusgai dauden megalitoetan. Kondairak dioenez, jentil jakintsuenari galdetu zioten zer ziren hurbiltzen ari ziren hodei bitxi batzuk, eta honek erantzun zien jainkoa jaiotzeko zela, Kixmi (horrela deitzen zioten Jesukristori). Zereginik ez zutelarik ikusita, harrizko lauza hauen azpian sartu eta desagertu egin ziren betirako. Hala ere, mitologiaren arabera, oraindik badira jentil batzuk gure basoetan, eta badira Urkiolan ikusi dituztela esatera ausartzen diren mendizale batzuk ere.




*Jentilak desagertu ziren megalitoak*



Izan ere, badago gaur egun guztiok ezagutzen dugun jentil famatua. Olentzero, Kixmi heldu zenean, inguruko herrietara jaitsi zen berri ona zabaltzera. Herrietatik zehar ikusi izan duten biztanleek XIX. mendeko ferietako jantzi tradizionala daramala aitortu dute behin eta berriz: abarkak, gerrikoa, alkandora, blusa eta txapela. Erretzeko pipa ere darama normalean eta ardoa edatea oso du gustoko. Bere istorioak dioenez, mendian bizi da, antzinako jentilak ez bezala, ezkutuan dagoen baserri erraldoi baten, eta ikatza egiten du urtean zehar. Oraindik, Gabon Gauean, Olentzero bere baserritik herrietara jaisten da, etxeetako berotasunera, aspaldi egin zuen bezala. Bere agerraldiak babes ematen die euskal etxe eta baserriei.


Bestalde, egon badago oraindik antzinako jentilen bizimodua jarraitzen duen erraldoia ere. Basajauna oihan ilun eta leize sakonetan bizi den gizaki handi, iletsu eta basatia da, baina jentil gehienak ez bezala, oso jakintsua da. Artaldean jeinu babeslea da, eta ekaitz arriskua dagoenean, orro egiten du artzainek artaldea babes dezaten; gainera, otsoa artaldera hurbil ez dadin ardurutzen da. Horregatik, inguruko baserrietan janaria jartzen zaio gauero eskerrona adierazteko. Indar handiko izaki beldurgarri eta gaizto bezala ere irudikatu izan da ipuin batzuetan. Nekazaritzaz jakituna izan omen zen; errementari eta errotaritzat ere hartu izan da; eta lehen euskaldunek beragandik ikasi omen zuten soroa ereiten, zerra egiten eta metalak soldatzen. Berez, erromatarrak Euskal Herrira etorri zireneko garaiarekin (Kixmiren jaiotzarekin) bat egiten dute kristautasunaren hasierak eta teknologia horien zabaltzeak.

Jentil gehienak onak izan arren, badago hain ona ez den pertsonaia ere. Tartalo edo Torto begi bakarreko jentil gaiztoa da. Antzina artzaina zen, ezagutzen den lehen artzain euskalduna. Tamaina ikaragarria du, indarra bestekoa, eta bere entretenimendu gogokoena harriak mendi batetik bestera botatzea da. Kondairak dioenez, denbora-pasa bitxi honen ondorioz, gaur egun ikusgai dauden hainbat eraikin sortu zituen. Jentilak ez bezala, Tartalo gaiztoa da, sen basatia eta oso oldarkorra baitauka. Noizean behin ardiak, haurrak eta helduak jaten ditu, batez ere kristauak. Tartalok eraztun magiko bat du, bere harrapakinak kontrolatzeko baliatzen duena. Tartalok "Non zaude?" oihukatzean, eraztunak "Hemen nago!" erantzuten du, bere harrapakinaren kokapena seinalatuz (Mikelats eta Atarrabiren kondairan gertatzen den bezala). Euskal elezahar batek dio itota hil zela, bere giza harrapakinetak baten atzetik, putzu batera erori ondoren. Dena dela, gaur egun aitona-amonek beraien ilobei gogorarazten diete baso eta mendietan kontuz ibiltzeko, Tartalo edozein lekutan ager litekeelako.



*Urkiolako pagoa*

Baso eta kobazuloez gain, bada Urkiolan bertan jaio den erreka ere, Urkiola Ibaia, hain zuzen. Ibai honen ezkutuko izkina eta ur-jauzietan ere aurki ditzakegu pertsonaia mitologikoak. Lamiak edo laminak jenio mitologikoak dira, ahate-oinekin, arrain-buztanarekin edo hegaztiren baten atzaparrekin deskribatuak. Ia beti femeninoak, edertasun handikoak, ibai eta iturrietan bizi ohi dira. Bertan luzaroan egon ohi dira beraien adats luzeak urrezko orraziekin orrazten. Atseginak izaten dira, eta hauek amorratzeko modu bakarra orraziak lapurtzea izaten da. Batzuetan hilkorrekin maitemintzen dira, baina ezin dira haiekin ezkondu, ezin baitute lur sagaratu zapaldu. Kasu batzuetan seme-alabak izaten dituzte haiekin. Elezahar batek dioenez, behin emakume batek lamia bati urrezko orrazia lapurtu zion, eta lamia, haserre, madarikatzen saiatu zen, baina ez zuen lortu, elizako kanpaiak jo eta salbatu egin baitzuen.



*Urkiola ibaiko ur-jauzia*

Istorio batzuen arabera, laminek antzinako nekazariei laguntzen zieten beraien zereginetan. Hauek, esker ona adierazteko, gauero janari soberakinak uzten zizkieten herrietako iturrietan. Baina laminek egiten zutena ez zen beti ona, batzuetan gizonak bahitzen baitzituzten, eta beste batzuetan, laguntzeko prest ez bazeuden, madarikatu egiten zituzten. Kasu batzuetan uste da gizakiak baino ahaltzuagoak direla, eta garai hartako biztanleek sakrifizio ezberdinak egin behar zituztela hauen mesedetan. Lamien zereginak era askotakoak ziren, hala nola, trikuharriak, zubiak, etxeak, gazteluak edo elizak eraikitzea, eta gauzez arropak garbitzea. Gizakiei eskatzen zieten gari-ogia edo arto-ogia hirugiharrarekin eta sagardoarekin jaten zuten, baita maitaleek ematen zieten ogia, mamia eta esnea ere. Laminek hainbat mesede eskatzen zizkieten gizakiei. Kondaira ezagun batek dioenez, laminek mesede bat eskatu zioten bere auzoko emagin bati. Emakumea laminak bizi ziren lekura joan zen eta eskatu zioten lana bete zuen. Bazkaltzera gonbidatu zuten, eta ogia zuria zela ikusirik, zati bat hartu eta poltsan gorde zuen. Etxera joateko zela, ezin izan zen eserlekitik jaiki, berea ez zen zerbait hartu zuen-eta. Emakumeak aitortu zuen ogi zati bat hartu zuela, eta mahaian uztera behartu zuten, horrela altxatu ahal izan zen aulkitik. Irtetean ohartarazi zioten: "ez begiratu atzera etxerako bidean". Etxera iritsi zenean, oin bat barruan zuela, atzera begiratu zuen, eta lamiek emandako urrezko oparien erdia galdu zuen.

Laminek baserritarrak bahitzen zituzten ustea ere oso zabaldua dago, ondoko elezaharrak jasotzen duen legez: Mañariko Askondo baserriko neska gazte bat egunero joaten zen Izurtzako baserrira irutera. Egun batean, San Lorentzo kobazuloaren aurretik igarotzean, laminak irten zitzaizkion bidera, eta handik gehiago ez pasatzeko esan zioten. Baina neskak ez zien jaramonik egin, eta beste bi aldiz errepikatu zioten laminek debekua. Azkenean laminek neska egoskorra bahitu egin zuten, eta ez zen neskaren inguruan ezer gehiago jakin. Elezaharraren arabera, neskaren arrosarioko zatiak landan sakabanaturik agertu ziren.



*Jentilen menirra*

# MĀÑĀRIKO AKELARREAK

**T**xikitatik entzun dugu antzina sorginek Euskal Herrian dantzak eta errituak ospatzen zituztela. Bada, emakume zahar itxura izan ohi duten pertsonaia hauen inguruko hainbat kontu zabaldu izan dira gure lurraldean zehar. Alde batetik, hauek Anbotoko Damaren zerbitzari gisa agertzen zaizkigu. Sorgin numenek Mariaren eginkizunak betetzen dituzte eta askotan Marik laguntzaile gisa sorgin bat du kobazuloan neskame bezala. Batzuetan, sorginak laminekin nahasten dira, nahiz eta izaki bera ez izan. Haiekin eta batez ere jentilekin batera, historiaurreko monumentu megalitikoak eraiki zituztela aipatu izan da hainbat kondairatan. Beraien ahalmenaren beldur izanik, arrantzaleen artean “sorgin” hitza esatea debekatua zegoen; tabua zen, esaterako, Lekeitioko eta Hondarribiko arrantzaleentzat itsasoan zebiltzan bitartean. Gehienetan beraien nahasteak prestatzeko fruituak eta landareak jasotzen dihardute, eta beste askotan, beraiengan sinisten ez dituztenak kaltetzen, beraien abereak eta uztak galtzen edo senideak gaixotzen aztikerien bitartez. Beraz, kondairak dioenez, “Direnik ez da sinistu behar, ez direla ez da esan behar”.



*Akerbeltzen irudikapena*

Bestalde, Anbotoko Damaren zerbitzupuan egoteaz gain, pertsonaia misteriotsu hauek inguruko belar, lore eta fruituen inguruan jakinduria handia duten emakume gisa agertzen zaizkigu. Jakinduria hau erabiltzen omen zuten sendagaiak prestatzeko, eta baita era guztietako aluzinagarriak ere, gero “Akelarre” izenez ezagutzen ditugun

sorginen batzarretan erabiltzeko. Izan ere, sorgin eta aztiak prestatuak, Akelarreak deabruarekin bat egiteko burutzen zituzten ospakizunak omen ziren. Bertan “Akerbeltz” agertzen zen beraien jarraitzaileei mintzatzeko. Akerbeltz lur barruan bizi den eta mendean morroi asko dituen iratxoa da, eta kristautentzat, Deabru beraren berrargitaratzea. Gaur egun, ordea, Akerbeltza antzinako jainkoa dela sinesten da, abereen babeslea, eta sendatzeko ahalmena duena. Eragin ongarria du taldeko gainontzeko abereen gain. Kolore beltzeko edozein aker bere ikurtzat hartzen da, horregatik ohikoa izan da Euskal Herriko zenbait lekutan aker beltzak edukitzea ukuiluetan, gainontzeko abereak babesteko.



*Silibrankako leizea (6)*

Kondairak dioenez, Mañariko Akelarre zelaian (akerraren larrea) ospatu ohi ziren batzar hauek. Jakintsuek Azkondo leizean kokatu dute sorginen topalekua. Deabruen joko zelaitzat jotzen zituen Akelarre zelaiaren eta Silibranka leizearen arteko amildegiak. Mañaria inguruan Euskal Herriko toki guztietako sorgin eta aztiak biltzen ziren urtean zehar, prestatzen zituzten belar aluzinagarriak dastatuz eta elkarri igurtziz, Akerbeltzekin hitz egiteko. Adin guztietako jarraitzaileak biltzen ziren landa hauetan, elkarrekin oilarrak irrintzi egin arte orduak eta orduak dantzan emateko.

# DURANGOKO HERESIA

**D**urangon, Mañarian ez bezala, mitologikoak ez diren akelarreak gertatu ziren.

XIII. mendean, Eliza Katolikoa lehen mailako potentzia zen Europan: esparru erlijiosoaz gain, ekonomiaren eta politikaren maila guztiak kontrolatzen zituen. Hala ere, elizako agintarien portaera publikoa eta pribatua ez zettorren bat Ebanjelioaren mezuarekin, eta horrek barne-disidentziako mugimenduak praktikatzera bultzatu zuen garai hartako biztanleria. Elizak mugimendu horietako batzuk bereganatu zituen eta beste batzuk gogor zapaldu zituen.

Erdi Aroan, herriaren bizitza gogorra zen: etengabeko borrokei eta lan nekagarriari gosea eta izurria gehitu behar zitzaizkien. Gaur egungo zenbait ikerlek herriaren baldintzak hobetzeko saiakera gisa interpretatu dute erlijio-heresien eta mugimendu iraultzaile disidenteen sorrera, heriotzatik harago paradisu zalantzazko baten zain egon gabe.



*Durango XV.mendean*

Honela sortu zen Durangoko Heresia gisa ezagutzen den mugimendua XV. mendean. Hau, erlijio-disidentziako mugimendua zen, Alonso de Mella apaiz frantziskotarrak sustatua. Fraide frantziskotarrak indar handia izan zuen Durangaldean, eta Iberiar penintsulako erreforma protestantearen aurrekari nagusitzat hartzen da. Frai Alonso de Mella eta Frai Gillen apaizen sermoiekin hasi zen guztia. Prediku edo sermoi horietan, karitatea eskatzeaz gain, senar eta emazteen arteko lotura edo kontratu zibil eta erlijioso gaitzetsi zuten. Kroniketan kontatzen dutenez, emazteak, etxeak eta familiak

utzirik, mendietako leize-zuloetara joaten hasi ziren eta bertan biltzen ziren fraide eta gainerakoekin amodio librea izan ohi zuten. Apaiz hauek trebetasun handiz jakin zuten sexu librea ongi zabaltzen. Horretaz gain, euskal sinesmen zaharretatik hartutako hainbat elementu gehitu zieten haien praktika eta doktrinari. Horrela, sakramentuak baztertu eta kastitatea kondenatu zuten. Hori dela eta, otoitz egiten zutelarik amodioa edonorekin eta edonola egin zezaketela uste zuten.

Mugimendu honek bostehun bat jarraitzaile bildu zituen Durangaldean. Hauek inguruetako mendietan bizi ziren, leize-zuloetan aterpeturik, eta, kronikek diotenez, han aritzen ziren luxurian eta lizunkeriatan fraide heretikoak, senarrak abandonaturik joandako emazteak, aita-amengandik liberatutako seme-alaba bihurriak etab. Gauetan, ilargiaren azpian, akelarre antzeko ospakizunak eta orgia handiak egiten omen zituzten.

Euskal lurraldeetan akelarreen ospakizunaren sinesmena oso eraldatua zegoen. Hain zen handia gertakizun hauek zuten eragina euskaldunen fedean, non erlijio katolikoak arrisku moduan ikusten zituen. Hori dela eta, eta heresiaren mugimendua ezagutu ostean, inkisizioa agertu zen Durangon 1444. urte inguruan. "Inkisizio" terminoa (latinezko "ikerketa"), zentzu zabalean, auzitegi erlijioso da, fedearen aurkako delituak ikertzen eta zigortzen dituen. Zehazkiago, Inkisizio Santuak lege-prozesuari eta Eliza Katolikoaren erakundeei egiten die erreferentzia, eta, zenbaitetan, heresiatzat jotzen zutena ezabatzeko ahalmena zuen. Europako Erdi Aroan erlijioaren aurkako mugimenduak askotan heriotza-zigorrekin zigortzen ziren, edota tortura ere erabiltzen zuten beraien etsaiak kondenatzeko.



*Inkisizioaren ikurra*

Bada, hain zuzen ere, inkisidoreek sorgintzat hartu zituzten Durangoko herejeak. Deabruarekin lotutako botere magikoak izatea eta honekin biltzeko eta bere nahia betetzeko helburuarekin akelarreak ospatzea leporatzen zieten. Honen ondorioz, Sorginen Ehiza moduan ezagutzen den jazarpena hasi zen.

Hasiera batean Frai Alonsoren predikuek amodio librea eta otoitz egitera deitzen bazuten ere, denbora igaro ahala, Durangaldeko herejeak bertako botere politikoaren aurka konspiratzen hasi ziren. Batzuren ustez, estatu hereje independente bat egin nahi izan zuten Durangaldean. Halako batean, Frai Alonsok jarraitzaileak armak hartzera eta Durangaldeko estatu independentea sortzera deitu zituen. Honek ekarri zion betiko galera Durangoko heresiari.

Inkisidoreek heretiko ugari atxilotu, epaitu eta beraien ideologian sinesteari uko egin nahi ez zieten jarraitzaile batzuk Durangoko Andra Mari elizpean erre egin zituzten, meza nagusitik irten berriak ziren herritarren aurrean. 1500ko abuztuaren 18an, Inkisizioak berrogei pertsona baino gehiago epaitu zituen Durangon. Haietako hamaika (hamar emakume eta gizon bat) sutara kondenatu zituzten, dozena erdi zigor fisiko edo isun batekin zigortu zituzten, eta zazpi emakume inguru, epaiketaren unean jadanik hilda zeudenak, lur azpitik atera, erre eta astindu egin zituzten. Epaituetatik hogeita hiru Durangokoak eta inguruak ziren. Haien izenak XVI. mendeko dokumentu baten transkripzio baten bidez iritsi zaizkigu gaur egunera.

Hala ere, Durangoko heresiak 50 urte inguru iraun zuen prozesuaren ostean. Honen espedienteak, akusatuen xehetasunekin eta leporatzen zitzaizkien egitateekin batera, Andra Maria elizan gorde zituzten XIX. mendearen hasierara arte. Eliza horretan erre egin ziren Frantziako tropen inbasioarekin, heresiaren ideiak jarraitzera bultzatzen zituzten dokumentuak zirela uste zutelako.

Kurutziagako plazan, Andra Mariko elizpearen aurrean, herejeen sarraskiaren tokian, Kurutziagako gurutzea eraiki zen, 4'3 metro ingurukoa eta kareharriz egina. Gurutze honek garai hartan gertatutakoa irudikatzen du, eta gerra zibilean kaltetua izan ostean, gaur egun Kurutziaga kalean dagoen museoan sartu zuten.

Sorginen Ehizak 200.000 hildako inguru eragin zituen Europako hainbat herrialdetan. Gaur egun ditugun datuek agerian utzi dute herejeen aurkako zapalkuntza beste edozein inkisizio mugimendu baino intoleranteagoa, bortitzagoa eta odoltsuagoa izan zela.



*Kurutziagako gurutzea (7)*




# AMAIERA

**B**ada, lan honekin agerian gelditzen da Durangaldeak duen garrantzia gure herriaren mitologia eta antzinako sinesmenak ulertzeko orduan. Kondaira askotako pertsonaiak kokatzeko eszenatoki ezin hobeaz gain, herrietako ohiturak era zuzenean definitu izan ditu. Euskal mitologia gure kulturarentzat hain garrantzitsua izatearen arrazoi bat euskal herriaren nortasun eta pertenezia zentzua ematea da. Mitologia arakatzean, euskaldunak gure sustraiekin konekta gaitzeko eta gure historia eta tradizioak sakonago uler ditzakegu. Herri gisa nor garen definitzen eta gure bereizketa ulertzen laguntzen digu.

Gainera, euskal mitologiak berebiziko garrantzia du euskal hizkuntza, literatura, artea eta musikaren eraketan. Artista, idazle eta musikari asko inspiratu izan ditu urteetan zehar, eta bere eragina euskal kulturaren alderdi askotan ikus daiteke. Bere mitologia gordetzean, Euskal Herriak bere herentzia kulturalak aurrera jarraitzen duela ziurtatzen du.

Beste hitz batzuetan, euskal mitologia euskal nortasun kulturalaren funtsezko zatia da. Komunitate bakar honen historiari, balioei eta ohiturei leioa eskaintzen die, eta euskal sortzaile askoren oinarria izan da. Gaur, gaur egun kondaira hauek hainbesteko indarririk ez izan arren, bertako talde eta erkidego ofizial ugari bere garrantzia hereditarioa ulertu du eta lan handia egin du mitologia hori zaindu eta ospatzeko, datozen belaunaldientzat bere kultura-ondarearen zati integrala izaten jarraituko duela ziurtatuz.

Bestalde, argi gelditu denez, erlijio katolikoak, bere finkapenarekin, eskua sartu izan du honako elezahar hauetan. Honek istorio askotan moldaketa ugari eta praktika tradizional askoren kristau bihurtzea edota gaitzetsiak izatea eragin du. Hala ere, hau Euskal Mitologiaren garrantziaren eta bere eraginaren froga baino ez da. Elizak garai bateko gizartean hain finkatuta zeuden sinesmen hauek ezabatu ordez, hauek nola edo hala moldatu ditu, euskaldunei beraien irakaskuntzak ezartzeko. Are gehiago, heresiaren inguruko sarraskiak eta garai hartan adierazpen askatasuna zapaldu zuten bestelako gertakizunak ere elizak gure kulturaren parte hartzearen ahaleginen ondorioak baino ez dira.



Urkiola (5)

# BIBLIOGRAFIA

---

## LIBURUAK:

BERGARA, A., ALZATE, R., DEL RIO, R.: *Mitologika: Euskal Herriko izaki magikoak gaur egungo ikuspuntutik*, Astiberri S.L.

BARANDIARAN, Jose Miguel de: *Obras Completas*, 1984.

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAKUNTZ: *P.R. Urkiola: Urkiolako Bidezidorrak*, Sua, 1998.

BERROJALBIZ, Ander: *Los Herejes de Amboto: "Luteranos" en el año 1500*,

ALZOLA, GEREDIAGA, BITAÑO, Nikolas: *Durangaldeko Atalak*, Gerediaga Elkarte, 2001.

SARRIONANDIA, Joseba: *Kristalezko Bihotza (Narrazio Guztiak)*, Elkar, 1979-1990.

## DOKUMENTUAK:

DURANGOKO UDALA: *Los Herejes de Durango*

BAZAN, DIAZ, Iñaki: *Formas De Disidencia Frente A La Iglesia Medieval*

## EDUKI AUDIOBISUALA:

Canal Historiako erreportaia: <https://www.youtube.com/watch?v=u90OMmkK90k>

EITB-ko Una Historia de Vasconia: [https://www.youtube.com/watch?v=\\_rV9TP7aAwU](https://www.youtube.com/watch?v=_rV9TP7aAwU)

## WEBGUNEAK:

<http://www.quiabizkaia.com/comarcas/duranguesado/duranguesado.php>

<https://euskalmitologia.com/glosario/#1484476075927-0afd51e0-a40d>

[https://es.wikipedia.org/wiki/Urraca\\_I\\_de\\_Le%C3%B3n](https://es.wikipedia.org/wiki/Urraca_I_de_Le%C3%B3n)

<https://www.atarrabi.es/static/pdf/leyendaatarrabi.pdf>

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/tartalo/ar-139122/>

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Akelarre>

<https://zuzeu.eus/kultura/durangoko-heretikoak-sexua-eta-mistika/>

[https://es.wikipedia.org/wiki/Cruz\\_de\\_Kurutziaga](https://es.wikipedia.org/wiki/Cruz_de_Kurutziaga)